



ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEKO

LANGILEEI BURUZKO FILOSOFIA

1995eko iraila

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEKO

**LANGILEEI BURUZKO FILOSOFIA**

1995eko iraila

SARRERA:

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea urte askoan zehar aritu da lanean langile militanteen lan estimagarriari esker. Hamaika ordu sartu ondoren, inork ez zuen txikitarik ere kobratzen. Ez zuten orduko elkartekideek guk gaur eskuartean dugun txosten honen behar handirik somatuko, ez horraitxiok!

Baina gauzak aldatu egin dira. Gizartea aldatzen dihoan neurrian, euskararen aldeko jardunak ere ezagutu ditu bere aldakuntzak. Onerako? Uste horretan ari gara, lehengo lana aintzakotzat hartuz eta benetan estimatuz ari bagara ere. Bestalde, Elkarteari jarraipena emateko erabakia, neurri batean behinik-behin, lehengo militanteek egindakoa putzu beltzean gera ez zedin hartu dugu. Lehen musutruk egindako lanek emaitza hobea merezi zutela pentsatu genuen 90eko irailean.

Euskalgintzaren garapenean ezagutu dugun aldaketa garrantzitsuenetariko bat LANGILE PROFESIONALEN agerpena izan da. ELGOIBARKO IZARRA, behin eta berriz esaten ari garen bezala, langile militante eta profesionalen arteko uztarketa bat da. Elkar elikatuz emaitza onak eman ditzaken formula izan zitekeela pentsatu genuen suspertzaile profesionala behar zela erabaki genuenean. Baina suspertzailearekin hasi zen kateak begi gehiago ere izan ditu, eta gehiago izango ditu proiektu berriak gauzatzen goazen neurrian.

Langile hauei buruzko filosofia orokorra definitzea da txosten honen helburu nagusia. Ezin gara uneoro inprobisatzen ibili, langileei buruzko irizpide batzuk behar ditugu gaur egungook eta gero etorriko direnek zeri heldu izan dezaten.

Halere, txosten honetan esaten dena ez da dekretuz bete behar den lege araudia. Testu honek, besteak beste, momentuko Zuzendaritza Batzordeari laguntzeko erreminta bat izan nahi du.

Bestalde, ezin pentsa dezakegu testua betirako izan daitekenik. Elkarteak etengabeko garapena ezagutuko duenez, testu honek ere, kotxe zaharrek ITVa bezala, noizbehinkako errebisioak beharko ditu momentuko behar eta baldintzei era egokian erantzuteko. Eredu Sinbolikoa izango da balizko aldaketei oniritzia emango diena.

Aztertzen diren gaiak asko dira eta denak zehazten ahalegindu gara. Alabaina, dudarik ez zirrikitu asko izango dituela txostenak, ihesbide dextente. Horiek tapatzeko eta momentuko erabakiak hartzeko ardura Zuzendaritza Batzordeak izango du.

Aubixan, 1995eko irailaren 24an.

0.- LANDU BEHARREKO GAIAK:

- 1.- Elkarateak izan ditzakeen lan eta langile motak.
- 2.- Lanen eta langileen beharraren balorazioa.
- 3.- Lanen eta langileen biabilitate ekonomikoa.
- 4.- Langileak hautatzeko metodologia.
- 5.- Kontratuak: bai edo ez, kontratu motak, ...
- 6.- Langileen soldatak eta dirusariak: zenbatekoak, ordaintzeko era, ...
- 7.- Langileen eskubideak eta betebeharrak. Elkaratearen eskubideak eta betebeharrak.
- 8.- Lanpostuen eta langileen mailaketa.
- 9.- Lanpostuen eta langileen iraupena.
- 10.- Barne promozioa eta lanpostuen aldaketak Elkaratearen baitan.
- 11.- Egungo (1995) lanpostuen egituraketa eta definizioa.

## 1.- ELKARTEAK IZAN DITZAKEEN LANGILE MOTAK:

Elkartek izan ditzakeen langileak aztertzerakoan, hasiera batean honako hauek ikusten ditugu aproposak edo beharrezkoak izan daitezkenak. Bete beharreko funtzioaren edo lanaren arabera, eta baliabide ekonomikoak kontutan hartuta, langile mota bat edo bestea aukeratuko du Elkartek.

### \* EGUN OSORAKO LANGILEAK:

Elkartek egun osoz kontratuean izango dituen langileak dira.

### \* ORDUKAKO LANGILEAK:

Elkartearantz ordu jakin batzuetarako lanean diharduten langileak dira. IKUS 5. ATALA: 'KONTRATUAK BAI ALA EZ'

### \* ENKARGUZKO LANETARAKO LANGILEAK:

Lan edo enkargu jakin baterako Elkartek hartuko dituen langileak dira.

### \* PRAKTIKETAKO LANGILEAK:

Elkartean praktiketan dauden ikasle-langileak izango dira. Bi mota: Guk eskatutakoak eta guri eskainitakoak.

### \* BEKADUN LANGILEAK:

Lan jakin bat burutzeko beka lortzen duten langileak izango dira.

### \* LANGILE MILITANTEAK:

Ezer kobratu gabe lanean diharduten langileek osatzen dute langile militanteen taldea.

\*\*\*

Elkartek momentu bakoitzeko beharren eta egoera ekonomikoaren arabera izango ditu langile batzuk edo besteak. Hasiera batean denak dira balekoak eta sustatu beharrekoak. Bete beharreko funtzioaren arabera, Elkartek erabaki beharko du zernolako langile mota behar eta komeni zaion kasu eta une bakoitzean.

Atal honetan LANGILE AUTONOMOEN kasua ere azaldu da; momentuz aukera hau baztertu egiten da da EREMU SINBOLIKOAREN 5. BATZARREAN aztertuko da aukera hau balekoa den ala ez.

## 2.- LANEN ETA LANGILEEN BEHARRAREN BALORAZIOA:

Jakinekoa da Elkartearen helbururik garrantzitsuena Elgoibarren euskararen normalizazioa lortzea dela. Zeregin horretan, Elkartearen erronka nagusia EUSKARAREN ERABILERA suspertzea izango da.

Erabileraren aldeko jarduna, lan eremua sektoreka banatuz bideratu beharko dugu eta esparru bakoitzak bere plangintza berezia eskatuko digu. Plangintza sektorial hauek prestatzea eta gauzatzea izango da gure LANA. Zeregin honetan Udalaren babesa eta gainontzeko agenteen inplikazioa bilatu beharko dugu.

Lan hauek behar bezala gauzatu eta helburuak ahal den neurrian lortzeko, Elkartek LANGILEAK beharko ditu. Langile mota eta kantitatearen balorazioa eta erabakia proiektu bakoitzean zehaztu beharko da, hau egin beharreko lanaren arabera izango delarik.

Beraz, Elkartek izango dituen lanak eta langileak zeintzuk izango diren lan-dinamikak eta ahalbide ekonomikoek erakutsiko digute. Lehendabizi lanaren (proiektuaren) beharraren balorazioa egingo dugu eta gero proiektu hori behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren langileak (mota eta kantitatea) zehaztuko dira.

Urrats biak ondo neurtu eta aztertzea komeni da, ez baikaude alferrikako lanetan ibiltzeko bezala.

### 3.- LANAREN ETA LANGILEAREN BIABILITATE EKONOMIKOA:

Aurreko atalean Elkartearen helburuak lortzeko behar ditugun lan eta langileei buruz aritu gara.

Alabaina, lan eta langile hauek guztiz baldintzatuta daude hirugarren atal honetan aztertuko dugunarekin:

. Elkartearen egoera ekonomikoa edo biabilitate ekonomikoa.

Edozein proiektu prestatzen dugunean, bere biabilitate ekonomikoa zehaztu beharra daukagu. Proiektu bakoitzaren kostu ekonomikoa eta horri aurre egingo dioten diru-iturriak aurretik finkatzea ezinbestekoa izango da. Aurrez erabat finkatu ezin denan, berriz, finantziabideak posible direla airrikusi behar da.

Elkartek ezin du lanik/proiekturik martxan jarri eta langilerik hartu, aurrez biabilitate ekonomikoa bermatu gabe.

#### 4.- LANGILEAK HAUTATZEKO METODOLOGIA:

Langileak hautatzeko metodologia aztertzerakoan, lehenengo atalean ikusi ditugun langile motak gogoratu behar ditugu. Langile mota bakoitza hautatzeko metodologia propioa eta berezia izango dugu eta horixe da orain azalduko duguna.

Ikus dezagun langile mota bakoitza hautatzeko orduan Elkarateak izango duen filosofia eta metodologia:

##### \* KONTRATUDUN LANGILEAK:

Kontratupeko langileak hautatzeko deialdia publikoa eta irikia izango da\*. Horretarako BARRENen emango dugu lanpostuaren berri.

Deialdirako oinarriak proiektua idatzi duen lantaldeak edo langile horren beharra proposatu duenak prestatuko ditu. Oinarriak ere publikoak izango dira. Oinarriak Zuzendaritza Batzordeak aztertuko ditu eta berea izango da azken hitza.

Langilea aukeratzeko ardura Zuzendaritza Batzordeak espreski izendatutako taldeak hartuko du beregain. Kasu batzuetan Elkarateak berak bakarrik hautatu ahal izango du langilea eta beste batzuetan (plangintza elkarlanean burutu behar denean) beste erakunderen bat izan dezake ikuskatzaile lanetan. Halere, kasu bietan Elkarateak dauka erabakiari buruzko azken hitza.

##### \* ORDUKAKO LANGILEAK:

Kontratudun langileekin dugun irizpide bera daukagu kasu honetan ere.

##### \* PRAKTIKETAKO LANGILEAK:

Aurrerago ikusi dugun bezala, bi motako langileak izango ditugu atal honetan:

1. Guk eskatutako kasuan, ikastetxeari ikasleak/langileak bete beharreko baldintzak edo ezaugarriak zeintzuk diren azalduko dizkiogu. Gero ikastetxea bera izango da ikasle/langilea izendatuko duena.

2. Guri eskainitako kasuan, garbi dago guk ez dugula ezer esatekorik. Eskaintzari baietza ala ezetza ematea baino ez zaigu geldituko.

Kasu bietan Zuzendaritza Batzordeak izango du azken hitza.

(\*) Zuzendaritza Batzordeak, beharrak hala eskatzen duen kasuren batean, langile bat zuzenean aukeratzeko eskubidea izango du.



**\* BEKADUN LANGILEAK:**

Kasu honetan Elkarateak (bakarrik edota beste erakunderen batekin elkarlanean) eraturako beka jasoko lituzketen langileak izango dira.

Bekaren deialdi publikoa egin ondoren, aurkeztutako jendearen artean Zuzendaritza Batzordeak erabakiko du zein den pertsona proposena beka hori jasotzeko.

Aukeraketa hau egiteko, kasu bakoitzerako beharrezkoak diren frogak prestatuko dira eta Zuzendaritza Batzordeak izango du azken hitza langilea aukeratzeko.

Erabakia Elkaratearena izango da beka gurea bakarrik denean; beste erakunderen batekin elkarlanean eratzen dugunean, berriz, bion artean hartu beharko dugu erabakia.

**\* ENKARGUZKO LANAK:**

Enkarguzko lanak burutzeko langileak Zuzendaritza Batzordeak aukeratu ditu. Lanaren beharra aztertu duen taldeak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko dizkio enkargu hori egiteko langilegaiak eta Zuzendaritzak emango dio oniritzia lantaldearen proposamenari.

Bestalde, baliteke Zuzendaritzak enkarguzko lana aztertu eta baloratu ondoren, langilea deialdi publiko bidez aukeratzeko.

**\* LANGILE MILITANTEAK:**

Langile mota honi dagokionean ez dago aparteko arazorik. Gure nahia Elkaratearen bueltan ahalik eta jende gehien egotea denez (lanean ahal bada), denek izango dute kabida eta lan egiteko aukera.

Langile militantea izateko baldintzen artean, euskaraz jakitea, lanerako gogo/intentzio ona edukitzea eta Elkaratearen filosofiarekin bat etortzea egongo dira.

\*\*\*

Bi hautagai antzerako aukerekin daudenean, honako hauek abantaila izango dute hautatuak izateko orduan:

- . Elkarteko bazkide direnek.
- . Elkarteko langile kotratugabeak direnek.
- . Elkarteko militanteak direnek.

## 5.- KONTRATUAK BAI ALA EZ, KONTRATU MOTAK, ...

Hasiera batean Elkaratearen nahia langile guztiak kontratupean edukitzea bada ere, gurea bezalako elkarte batek eragozpen handiak izan ditzake bere nahiak betetzeko orduan.

ELGOIBARKO IZARRAREN helburua euskararen normalizazioa izanik, helburu hau lortzeko hainbat proiektu eta plangintza bideratu eta burutu beharko ditugu. Proiektu hauek behar bezala gauzatzeko, Elkaratearen filosofiari jarraituz eta beharrak hala agintzen digunean, LANGILE PROFESIONALEN eta LANGILE MILITANTEEN uztarketa orekatua bilatu beharko dugu.

Halaber, Elkaratearentzat helburu nagusia den euskararen normalizazioa lortzeko prestatuko ditugun proiektuek dute lehentasuna, langileak proiektu horien aurrekontuak lagatzen duten baldintza onenetan edukiz.

Halere, proiektuetan aurrirakosten diren soldatapeko langileak ahalik eta egoera duinenean jarduteko ardura Elkarateak beregain hartuko du.

Azken finean zera esan nahi da:

ELKARTEAK AHALEGIN GUZTIAK EGINGO DITU SOLDATAPEKO LANGILEEI KONTRATUA EGITEKO BAINA BIABILITATE EKONOMIKORIK IKUSTEN EZ DENEAN KONTRATU GABEKO LANGILEAK ERE IZAN DITZAKEGU.

Halere, Elkarateak badu erabaki finkorik kontratuei dagokienean:

. Urtebeteko gutxieneko iraupenarekin eta egun osoz lanean arituko diren langileei Elkarateak kontratua egingo die.

. Langile bati kontratua egiteko, lanak urtebeteko gutxieneko iraupena eta 25-30 ordu baino gehiagoko lan astea izango du.

Baldintza hauek betetzen dituzten langileei Elkarateak kontratua egingo die.

Elkaratearen filosofia hau bada ere, egoera ekonomikoak baldintzatuta behin-behineko bestelako erabakiak har ditzake.

. Proiektua guztiz finkatu gabe edota langilearen lan bolumena defintu gabe dagoenean, Elkarateak ez dio kontraturik egingo langileari.

. Proiektu batean langile bat baino gehiago daudenean eta denei kontraturik egiterik ez dagoenean, langile bakoitzaren proiektuarekiko garrantzia izango da kontutan kontratua zeini bai eta zeini ez erabakitzerakoan.

6.- LANGILEEN DIRUSARIAK ETA SOLDATAK: ZENBATEKOAK,  
ORDAINTZEKO ERA, ...

Puntu honi dagokionean ere, langile mota bakoitzari bere erantzuna eta irtenbidea topatzen ahaleginduko gara.

Ikus dezagun langile mota bakoitzak zer nolako tratamendua izango duen dirusariei dagokienean.

KONTRATUDUN LANGILEAK:

Kasu honetan kontratua zenbat ordutakoa den kontutan hartuta erabakiko da soldataren zenbatekoa. Zenbatekoa gerentziak eta Zuzendaritza Batzordeak erabakiko dute aurrez erabakitako mailaketaren arabera.

Zenbatekoa erabakitzerakoan hainbat puntu izango dira kontutan:

- . Langilearen funtzioa eta lanpostuaren kualifikazioa.
- . Proiektuaren aurrekontua eta finantziabideak.
- . Ellkarteko gainontzeko langileek kobratzen duten soldata.
- . Inguruetako herrietan langile beretsuek kobratzen dutena.

Kontratudunen soldatak kontratuekin batera amaituko dira eta kontratua berritzean erabakiko da soldatak aldaketarik izango duen edota dagoenetan lagatzen den.

Ordaintzeko erari dagokionean, ordainketak hilero egingo dira eta Elkartek erabakiko du aurrez ezarritako diru kopurua kontutan izanik, zein den oradiantzeko formukarik aproposena langilearen beharrak aintzakotzat hartuz.

ORDUKAKO LANGILEAK:

Ordukako langileek sartzen duten lan-ordun araberako dirusaria izango dute. Dirusari honen zenbatekoa gerentziak eta Zuzendaritza Batzordeak erabakiko dute.

ENKARGUZKO LANETARAKO LANGILEAK:

Enkarguzko lanak ordaintzeko bi era izango ditugu:

- . Lanari aurrez dirusaria izendatuta.
- . Lana jaso ondoren erabakitako dirusaria.

Lenengo kasuan lantaldeak proposatu eta Zuzendaritza Batzordeak erabakiko du zein dirusari izan daitekeen aproposa eta bidezkoa aipatutako lana burutzeko. Horretarako, besteak beste, lanaren zailtasuna, garrantzia, denbora eta aurrekontua baloratuko dira.

Bigarren kasuan, lana jaso ondoren baloratuko da honen balioa eta honen arabera diru-saria ordainduko da. Kasu honetan ere lantaldeak proposatu eta Zuzendaritza Batzordeak izango du azken hitza diru-saria erabakitzerakoan.

Kasu bietan Elkarteak langileari komentatuko dio bere erabakia, ea bidezkoa iruditzen zaion galdetu eta adostasun batera iristeko.

#### PRAKTIKETAKO LANGILEAK:

Kasu honetan ere sail honetan dauzkagun bi langile motak bereiztuko ditugu:

##### . Guk eskatutakoak:

Elkarteak ez dauka langile hauei ordaintzeko obligaziorik. Halere, praktikak bukatutakoan Zuzendaritza Batzordeak langilearen dedikazioa eta lana baloratuko ditu eta dirusariren bat ematea erabaki dezake.

##### . Guri eskainitakoak:

Kasu honetan Elkarteak ez du inolako dirusaririk ordaindu beharrik.

#### BEKADUN LANGILEAK:

Langile hauek BEKAK zehaztutako diru kopurua jasoko dute bestelako dirusaririk gabe.

#### LANGILE MILITANTEEK:

Langile militanteek ez dute inolako dirusaririk jasoko euren lanaren ordainetan. Euren jardunean diru gasturen bat balute, Elkarteak ordainduko luke.

\*\*\*

Atal honetan aztertutako gaiei buruzko erabakiak hartzerakoan, Elkarteko GERENTZIAK izango du ardura eta erantzunkizun nadiena. Beti ere erabakiak Zuzendaritza Batzordearekin adostuz.

## 7.- LANGILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

Atal hau aztertzerakoan, langileen eskubide eta betebeharrak lantzen hasiko gara, jarraian hainbat puntu definituko ditugularik.

Atal honetan azaltzen direnak erreferentzia bezala hartu behar ditugu eta kasu guztietan langileen estatutua eta legedia egongo da gainerik.

### LANGILEAREN ESKUBIDEAK:

Elkarteko langileek, besteak beste, honako eskubideak izango dituzte:

- . Aurrez Elkartearekin adostutako soldata edo dirusaria jasotzeko eskubidea, bai kopuruari eta bai maiztasunari dagokionean.
- . Lana baldintza eta soldata duinetan burutzeko eskubidea. Bestalde, langileekiko ez da inolako diskriminaziorik emango.
- . Formazio ikastaroak jasotzeko eskubidea Elkarteak bere mesederako dela hobesten duenean.\*
- . Sindikatu batean izena emateko eskubidea.
- . Grebarako eskubidea (Ikus GREBAK atala).
- . Aurrez Elkartearekin adostutako lan ordutegia bere horretan betetzeko eskubidea. Beste horrenbeste lan egutegiaren kasuan. (Ikus OPORRAK eta ORDUTEGIA)
- . Lanari eta proiektuari buruz iritzia emateko eskubidea.
- . Sendagilearen errekonozimendua pasatzeko eskubidea (kontratudunek).

### LANGILEAREN BETEBEHARRAK:

- . Elkarteak izendaturiko funtzioak eta lanak borondate onez eta profesionaltasunez betetzea.
- . Langile bakoitzak duen zuzendari edo arduradunaren aginduak zuzen betetzea.
- . Elkartearen filosofia eta helburuak onartzea eta errespetatzea.
- . Elkarteko bazkide izatea.
- . Elkartearen eta proiektuaren mesederako bere esku dagoena egitea.
- . Lan ordutegia eta egutegia zuzen betetzea.
- . Elkartearen kalterako izan daitekeen ezer ez egitea.
- . Lankide eta bestelako kideekin gizalegez eta errespetuz portatzea.

(\*). Ikastaroaren berri Zuzendaritza Batzordeari emango dio langileak eta hark baloratuko du ikastaroa mesederako den eta zein baldintzatan burutu behar den formazio ikastaroa.

#### ELKARTEAREN ESKUBIDEAK:

. Elkartea langileari aginduak emateko gaituta dago lan egiteko baldintzei dagokienean: lan egiteko era, lekua, denbora, ...

. Elkartearen edo proiektuaren bilakaeran edozein aldaketa egiteko gaituta dago: lanpostu, egitura, antolakuntza eta kualifikazio aldaketak.

. Disziplina arauak erabakitzeke ahalmena izango du Elkarreak.

#### KONTUTAN HARTU BEHARREKO BESTE PUNTU BATZUK:

##### \* OPORRAK:

Langilearen lan egutegia Elkarreak aurrez izendatutakoa izango da. Halaber, langileen jaiegunak eta oporrak ere kontratuan zehaztuta azalduko dira.

Ordukako langileen kasuan, langile bakoitzari bere lan egutegia izendatuko dio Elkarreak. Hauek ez dute ordaindutako oporrik izango.

##### \* LAN ORDUTEGIA:

Lan ordutegia langilea lanean hasi aurretik izendatuko du Elkarreak. Ordutegia proiektuaren beharretara egokitua egongo da. Langilea ordutegi hau betetzera derrigortuta egongo da. Asteaz zehar bete beharreko ordu kopurua ere Elkarreak jakinaraziko dio langileari.

##### \* GREBAK:

Elkarteko langileek grebarako eskubidea izango dute. Langileak aurrez esango du greba egiteko asmoa daukala. Bestalde, langileek lanean diharduten proiektua bere horretan betetzeko obligazioa dute. Greba egunetan egun horri dagokion soldata galdu egingo du langileak.

##### \* KONTRATUA ETEN:

Gai honi dagokionean bi mota bereiztuko ditugu:

- . Kontratua behin-betirako eten.
- . Kontratuaren behin-behineko etena.

#### KONTRATUA BEHIN-BETIRAKO ETEN:

Honako hauek dira kontratua behin-betirako eteteko arrazoiak:

- . Elkaratearen eta langilearen borondatez:
  - . Alde biek adostuta.
  - . Lanaren edo proiektuaren amaiera.
- . Langilearen borondatez:
  - . Dimisioa.
  - . Aldegitea.
  - . Elkarateak bere hitza ez betetzeagatik.
- . Heriotza, inkapazitatea, ...
- . Elkaratearen desagerpena edo proiektuaren porrota.

#### KONTRATUAREN BEHIN-BEHINEKO ETENA:

Kasu honetan denbora jakin baterako etengo da kontratua.

Noiz eman daiteke kasu hau?

- . Langileak hala eskatuta: eszedentzia, ...
- . Langileak eta Elkarateak adostuta: disziplina arrazoiak, lanik ez dagoelako, behin-behineko elbarritasuna, ...
- . Elkaratearen erabakiz: dirurik ez dagoelako, lanerako gauza ez izatea, ...

Kasu bakoitzeko baldintzak langileak eta Elkarateak adostuko dituzte.

#### \* DESPIDOAK:

Honako hauek dira Elkarateak langile bat despeditzeko arrazoiak:

- . Langileak kontratua ez betetzea.
  - . Lanera azaldu ez edota ordutegia ez errespetatzea.
  - . Disziplina falta eta aginduak ez betetzea.
  - . Lankideekin gizalegez eta errespetuz ez jardutea.
  - . Laneko funtzioak behar bezala ez betetzea.
- . Bestelako arrazoiak:
  - . Elkaratea langilearen inkapazitateaz kontratua egin ondoren jabetzea.
  - . 'Langilearen betebeharrak' atalean agindutakoa ez betetzea.

## 8.- LANPOSTUEN ETA LANGILEEN MAILAKETA:

Gai honi dagokionean, Elkarteko langile guztiak (langileak diren neurrian) berdinak direla esango genuke. Denek izango dituzte eskubide berdinak.

Gai bati dagokionean bakarrik izango dira ezberdintasunak:

- . Soldatak.

Langile guztiek ez dute soldata bera izango.

Mailaketa egin eta soldatak izendatzerakoan, LANGILEEK PROIEKTUAREKIKO DUTEN ARDURA izango dugu kontutan. Bestalde, proiektu guztiak ere ez ditugu maila berean jarriko eta hemen ere mailaketa egingo da.

Elkartearen egungo langile egitura kontutan izanik, mailaketa honela gelditzen da:

- . Suspertzailea.
- . Proiektu zuzendariak.
- . Kazetaria eta maketatzzailea.
- . Administraria.
- . Kontratu gabeko langileak.
- . Ordukako langileak.



## 9.- LANPOSTUEN ETA LANGILEEN IRAUPENA:

### \* LANPOSTUAK:

Elkarteko lanpostuen iraupena proiektuek edota Elkartek irauten duten bestekoa izango da.

Bestalde, proiektuetan egituraketa edo antolakuntza aldaketak eman daitezke eta aldaketa hauek lanpostuetan eragina izan dezakete.

### \* LANGILEAK:

Jarraian lanpostu bakoitzean langile bakoitzak izan dezakeen iraupena aztertuko dugu:

#### . Suspertzailea:

Suspertzailearen iraupena 8 (ZORTZI). Urte hauek pasa ondoren, lanpostu hau betetzeko deialdi publikoa egingo da. Aurkezten direnen artetik erreleboa era egokian egingo duen langilerik aurkezten bada, suspertzaile berria kontratatuko da. Suspertzaile lanak betetzeko langile aproposik aurketu ez dela erabakitzen bada, berriz, lehengoa berriz hartzeko aukera izango da.

Pertsona aproposik aurkeztu den ala ez erabakitzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak edo Eremu Sinbolikoak izango du.

#### . Administraria:

Honen iraupena 4 urteko izango da. Erreleboa ematerakoan suspertzailearen kasuan esandako guztiak balekoak dira kasu honetarako ere.

#### . BARREneko Zuzendaria:

BARREneko Zuzendariak 4 urteko gehienezko iraupena izango du. Kasu honetan ere, erreleboa emateko baldintzak aurrekoen berdinak dira.

#### . Kazetaria:

Kazetariak ere 4 urteko iraupena izango du eta aurrekoen baldintza beretan emango da erreleboa.

#### . Maketatzailea:

Maketatzaileak ere 4 urteko iraupena izango du, errelebo metodologia aurrekoen bera izango delarik.

. Publizista:

Langile honek ere, beste guztiek bezala, 4 urteko iraupena izango du. Lau urte pasa ondoren deialdi berria egingo da publizista berria aukeratzeko.

. Banatzaileak:

Banatzaileak bere horretan mantenduko ditugu lana ondo egiten duten neurrian. Erreleboak taldeak berak antolatzen ditu ikasketetan aurrera dihoazen neurrian.

. Begirale zuzendaria:

Langile honen lan bolumena momentuz definitu gabe dagoenez, ezin dugu iraupenari buruzko zehaztasunik eman.

. Begiraleak:

Begiraleen kasuan ez dago arazorik. Elkartea eta begiralea gustura dauden bitartean, begiraleak bere lana betetzen segitzeko aukera izango du.

Aisialdi proiektuaren beharraren arabera begirale kopurua izango du Elkarateak.

. Entitateetako teknikaria:

Teknikariak, proiektuak eskatzen duenaren arabera, 3 urteko iraupena izango du. Hiru urte pasa ondoren deialdi berria egingo da eta teknikari berria aukeratzeko da horretarako gaituta dagoen pertsonarik aurkezten bada. Bestela lehengoak segituko luke.

\*\*\*

Kontratadun langileen kasuan, kontratuak urtebeterako egingo dira eta Zuzendaritza Batzordea izango da, urtero urtero, kontratua berritu ala ez erabakiko duena.

Kontratu gabeko langileen kasuan ere, Zuzendaritza Batzordeak urtero aztertuko du langilearekin jarraitu behar dugun ala ez.

Momentuz egun dauden langileen iraupena definitu dugu. Elkarateak langile berriak hartzen dituen neurrian, hauen iraupena defintzeko ardura izango du.

10.- BARNE PROMOZIOA ETA LANPOSTUEN ALDAKETA ELKARTEAREN BAITAN.

Elkartearen baitan lanean diharduten langileek euren lanpostuak aldatzeko aukera eta eskubidea izango dute. Bestela esanda, Elkartean lanean diharduen langile batek Elkarteko beste lanpostu bateko deialdira aurkezteko aukera izango du.

Lanpostu aldaketa hau mailaketan gorantz denean bakarrik onartuko da (Ikus mailaketa). Aukera hau aprobetxatu duen langile batek 8 urteko altueneko iraupena izan dezake Elkartean.

Elkarteko langile-egituratik kanpo egon den langile ohi batek (urtebeteko gutxieneko denboraldia), berriz aurkezteko aukera izango du eta zerotik kontaktzen hasiko da.

Elkartearen egungo langile-egituraren mailaketa honako hau da:

- . Suspertzailea(k).
- . Zuzendariak (Proiektuetako arduradunak).
- . Maketatzailea-Kazetaria(k).
- . Administraria(k).
- . Ordukako langilea(k).

11.- EGUNGO LANPOSTUEN ETA LANGILEEN DEFINIZIOA ETA EGITURAKETA:

Elkartek egun dituen lanpostuen egituraketa honako hau da:

ELKARTEKO EGITURAN: SUSPERTZAILEA  
ADMINISTRARIA

BARRENEKO EGITURAN: ZUZENDARIA  
MAKETATZAILEA  
KAZETARIA  
PUBLIZISTA  
BANATZAILEAK

AISIALDIKO EGITURAN: BEGIRALE ZUZENDARIA  
IHARDUERA ARDURADUNAK  
BEGIRALEAK

Ikus dezagun lanpostu eta langile hauen definizioa zein den:

SUSPERTZAILEA:

Elkartek izan duen lenengo langilea dugu. Lanpostu honek egun osoko dedikazioa eskatzen du. Beraz kontratua derrigorrezkoa da.

ADMINISTRARIA:

Elkartek hartu duen bolumen finantzieroa ikusirik, administraria derrigorrezkoa izango da Elkartean.

Lanpostu honek egunean sei orduko dedikazio eskatzen du. 6 orduko urtebetarako kontratua egiteko aukerak eta zortzi ordutako kontratua egiteko aukerak aztetuko ditu gerentziak.

BARRENEKO ZUZENDARIA:

Lanpostu honek ere egun osoko dedikazioa eskatzen du. Langileak kontratua izango du urtebeteko iraupenarekin. Kontratua bukatu ondoren berritzeko aukerarekin Elkartek hala erabakiz gero.

MAKETATZAILEA:

Lanpostu honek ere egun osoko dedikazioa eskatzen du. Langileari urtebeteko kontratua egingo zaio kontratua bukatu ondoren berritzeko aukerarekin.

#### BARRENEKO KAZETARIA:

Lanpostu honek 6 orduko dedikazioa eskatzen du. Urtebeteko iraupena izango du, urte bukaeran berritzeko aukerarekin. Kontratua egiteko aukerak aztertuko ditu gerentziak eta baita zortzi ordutako kontratua eginez gero dirutan zenbateko aldea dagoen ere.

#### PUBLIZISTA:

Postu honek ez dauka dedikazio finkorik. Langileak helburu ekonomiko batzuk bete behar ditu eta horrela den bitartean publizistaren lana balekoa da. Publizistak ez dauka kontraturik eta helburuak betetzen dituen bitartean, eta 'Langileen betebeharrak' ataletik berari dagozkionak betetzen dituen neurrian, lanean segituko du berak hala nahi badu.

#### BANATZAILEAK:

Banatzaileek astean behin egiten dute lan eta ez daukate aparteko loturarik Elkartearekin. Banatzaile taldeak funtzionatzen duen bitartean ez da aldaketarik egingo eta eurek egiten dituzte jende aldaketak.

#### BEGIRALE ZUZENDARIA:

Lanpostu hau behin-behinekoa da aisialdi proiektua finkatu gabe dagoen bitartean. Begirale Zuzendari titulua dutenak sei direnez, hasierako asmoa Begirale Zuzendariaren kargua txandaka ezagutzen joatea da. Egun hamar orduko lan astea dauka eta momentuz ez daukagu lanpostu hau gehiago definitzerik.

#### IHARDUERA ARDURADUNAK:

Begirale hauek, batez ere, iharduerak prestatzeko daude, ihardueren arduradunak dira eta horren truke diru kopuru bat kobratzen dute. Egungo egituraketan bost begirale dira honetaz arduratzen direnak. Iharduera arduradunek begirale lanak ere egin ditzakete. Ez dute inolako kontraturik.

#### BEGIRALEAK:

Begiraleak Aisialdi Plangintza gauzatzeko dauzkagun langileak dira. Egun hogeita hamalau laguneko taldea daukagu eta burutzen duten lan bakoitzeko dirusari bat jasotzen dute. Kontraturik gabe.

(\*) Proiektu eta langile berriak hartzen goazen neurrian, euren egituraketa eta definizioa prestatuko dugu.